

HADE

2 MAILA

Gaia: Etxebizitzak. Etorkizuneko etxeak. Bizilekuak.

1. argazkia



Elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer ikusten duzu argazkietan?
- Bi argazkien artean badago loturarik?
- Zertan?
- Zer etorri zaizu burura lehenengo argazkia ikustean? Bigarrena ikustean?
- Zein irudi duzu gogokoago?
- Zergatik?

AZTERKETARIAREN EGITEKOA

Gaia: A. Bizitza etorkizunean

Bizitza etorkizunean

Egitekoa

Nolakoak pentsatzen duzu izango dela etorkizuneko bizitza? Espazioan zehar bidaiak egingo ditugu? Etxeak, nolakoak izango dira? Etorkizuneko bizimoduaz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

Zehatzago

Azaldu nolakoak izango den etorkizuneko bizitza, zure ustez. Zer egingo dugun, nola biziko garen, orain baino hobeto ala okerrago. Zergatik? Zeintzuk izango diren abantailak eta desabantailak. Adibideak eman. Azpimarratu zein diren gaurko bizimoduaren gauza onak eta txarrak eta etorkizunean zer aldatuko zenukeen eta zer ez.

Agian, epaimahaikoen galderaren bat edo beste egingo dizute.

Gaia: A. Etorkizuneko etxea

Etorkizuneko etxea

Egitekoa

Nolakoak izango dira etorkizuneko etxeak? Nola imajinatzen dituzu? Deskribatu etorkizuneko etxe bat. Zein izango dira alde onak eta txarrak? Zertan izango dira hobeak? Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

Zehatzago

Azaldu nolakoak imajinatzen dituzun etorkizuneko etxeak (barrutik, kanpotik, ingurua, barruko bizitza, tresnak, materialak...) Bizimodua zertan aldatuko diguten, zein izango diren abantailak, zein desabantailak. Gaurkoak baino hobeak izango dira ala okerragoak? Zergatik?

Azpimarratu etorkizuneko etxeetan aurkitu nahiko zenituzkeen gauzak eta alderatu gaurko etxeekin.

Agian, epaimahaikoen galderaren bat edo beste egingo dizute.

HADE

2 MAILA

Gaia: C. Hiriak lehen eta orain

Hiriak lehen eta orain

Egitekoa

Gure hirietan aldaketa handiak gertatu dira azken urteetan. Azaldu aztertzaileei zer aldatu den zure herrian edo hirian, nolakoa zen lehen eta nolakoa den gaur egun. Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

Zehatzago

Azaldu nolakoa zen zure herria edo hiria lehen eta nolakoa den orain. Zertan aldatu den, zein diren oraingo abantailak eta zein desabantailak, zer galdu den eta zer irabazi, zergatik aukeratuko zenukeen bata ala bestea.

Azpimarratu etorkizunean zure hirian edo herrian aurkitu nahiko zenituzkeen gauzak eta alderatu gaurko hirian edo herrian dituzunekin.

Zeure hiria edo herria hobetzeko proposamenak egin ditzakezu.

Agian, epaimahaikoen galderaren bat edo beste egingo dizute.

Gaia: D. Etxebizitzen arazoa

Etxebizitzen arazoa

Egitekoa

Gero eta zailagoa da etxebizitza bat erostea. Gazteek ezin dituzte etxeak erosi. Gurasoen etxean bizi dira gero eta denbora gehiago. Etxebizitzen prezioak ikusita, edonorentzat da arazo etxe bat erostea. Gai horri buruz hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

Zehatzago

Azaldu zein den etxebizitzen egoera zure inguruan, etxebizitzen premia dagoen ala ez. Konparatu beste leku batzuetan bizi den egoerarekin edo beste garai batzuetan zegoenarekin. Arazoa konpontzeko nolako etxeak egingo zenituzke? 30 m²ko apartamentuak? Etxeak erosi ordez, beste aukerak badira, zein?

Proposamenak egin etxebizitzen arazoa konpontzeko.

Agian, epaimahaikoen galderaren bat edo beste egingo dizute.